


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Soziologiako Gradua

2020/2021 ikasturtea

Zaintza sareak elkarren bizitzeari eusteko saiakeran

Zaintza lanen birformulazio komunitarioa konfinamenduan zehar

“Algortarrok Zaintzen” proiektuaren azterketa

lana: Berta Etxebarria

2021/05/22

lana: Maitxalen Legarreta

“Gratu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabean eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisa ilustratze aldera”

*“Kontua ez da bizi ala iraun.
Bizi ala iraun polita da
indarra du
lelo bat da
baina kontua egiatan da
iraun ala etsi
(eta bake santua eman).*

*Antonimo ez dira
sinonimo ere ez:
badirauenak ez du etsi
ezta gezurretan ere.”*

Maialen Berasategi | *Eskuan beti zerbait* | Etsi faltsuarena

*“Eskuak trapuarekin sikatzen jarraitzen du emakumeak, nahiz eta siku dituen aspaldi.
Pentsatu gabe ari da, modu mekanikoan. Eta nik, bat-batean, eskuak ikusi ditut nire buruan.
Eskuak eta eskuak. Nire wifiaaren pasahitza azalean idatzia duten neskatoen eskuak teklatu
batean hitzez hitz, zenbakiz zenbaki kopiatzen; nire auzokidearen Boliviako amaren eskuak
eta ondoko atean bizi den Jesusaren eskuak oihal bera ehuntzen... Funanbulistok
hondamenditik salbatuko gaituen sare bat ehuntzen.”*

Jasone Osoro | Eskailerapeko

Aurkibidea	
Sarrera	4
Marko teorikoa	5
Zertaz ari gara zaintzaz ari garenean?	5
Kapitala eta bizitza: muturrera eramandako kontraesan bat	7
Komunitateak irauli dena aldatzeko	11
Metodologia	15
Kokapen epistemologikoa	15
Ikerketaren helburuak	16
Ikerketa teknikak eta landa lana	16
Zaintza komunitariorako tresnak nondik eta nola sortu	20
Proiektuaren kokapena	20
Zergatik orain? Zergatik hemen?	21
<i>Kapital ekonomikoa edo egonkortasunaren garrantzia</i>	22
<i>Kapital kulturala, goi mailako ikasketen monopolioa</i>	23
<i>Kapital soziala: auzo izaera, auzoko harremanak, merkataritza txikia eta herri mugimendua</i>	24
Zaintza sarea itxialdian zehar: harreman zaharretatik aliantza berriak	26
<i>Aliantzaren eta konfiantzaren gainbalioak: kapital sozialaren pieza bat gehiago</i>	26
<i>Prestigioa eta esker ona: kapital sinbolikoa metatzeko era bat?</i>	28
<i>Zaintzaren mugak: non eta zertarako</i>	30
Ondorioak	35
Bibliografia	37
Eranskinak	42
Baimen informatua	42
Elkarrizketen gidoia	44

Sarrera

Urtebete baino gehiago pasatu da jadanik espainiar Estatuan alarma egoera eta itxialdia ezarri zela eta orain, atzera begira, orduko baldintza eta beharretatik sortutako proiektu baten inguruko Soziologia Graduko Gradu Amaierako Lana aurkeztera noa, auzo eta herrietatik abiatu ziren zaintza sareak ezagutzeko saiakera batean. Ukaezina da Covid-19ak izugarritzko aldaketa eragin duela gure gizartean eta norbanako bakoitzaren egunerokotasunean. Jadanik gure artean denbora luzea daraman osasun krisialdi batek jo gintuenetik lan egiteko, ikasteko, ingurukoekin harremanak izateko, eta jakina, antolatzeako erak modu nabarian eraldatu dira. Gainera, osasun krisiak zaintza krisia ere areagotu du, denon bizitzak sostengatzen dituzten zaintzak aitormenik ez duten langileek egiten dituztela ikusi dugu, nabaritu dugu, une labur batez bada ere, ez garela era autonomoan bizitzeko gai, interdependentzia sareek eusten dituztela gure bizitzak.

Biztanleria osoaren itxialdiak (463/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarritakoak) eta arrisku taldeei etxetik ez ateratzeko egindako gomendioek ordura arte eguneroko lanak betetzeko gai zen biztanleriaren zati handi baten autonomiaz aritzeko gaitasuna era deigarrian gutxitu dute. Osasun krisiak lehendik ere existitzen ziren beharrak azalatu eta berriak ere sortu ditu, joko zelaiaren baldintzak aldatu ditu, eta horrek, gure inguruan aurretik ikusi ez ditugun gizarte antolaketarako eta gizartearen beharrei erantzun kolektiboak emateko bideak ere ireki ditu. Testuinguru honetan, zenbait auzo eta herritan zaintza sareak jarri ziren abian, hala, inoiz ikusi gabeko antolaketarako gaitasuna erakutsi zuten, etxetik atera ezinik eta gizarte zerbitzuen eta instituzioen babesik gabe.

Itxialdia ezarri eta egun gutxira hasi ziren zaintza sareak biderkatzen, bai Euskal Herrian eta baita beste zenbait tokitan ere. Kasu honetan, Algortako zaintza sareaz ariko naiz, “Algortarrok Zaintzen” izenpean itxialdiaren hasieran funtzionamenduan jarri zena eta gaur egun martxan jarraitzen duena. Baina zaintza sare hauen sorrera ezin dezakegu testuinguru zehatz batetik kanpo ulertu, horregatik, ikerketa honek zaintza sareak sortzeko, mantentzeko eta aurrera egiteko zergatiak aztertzea izango du helburu.

Marko teorikoa

1) Zertaz ari gara zaintzaz ari garenean?

Zaintza sareen hurbilpen bat egiten hasteko beharrezkoa zaigu zaintza bera definitzetik hasia. Hala definitzen du Trontok (1993) zaintza:

“Una actividad característica de la especie humana que incluye todo lo que hacemos con vistas a mantener, continuar o reparar nuestro ‘mundo’, de tal manera que podamos vivir en él lo mejor posible. Este mundo incluye nuestros cuerpos, nuestras individualidades (selves) y nuestro entorno, que buscamos tejer juntos en una red compleja que sostiene la vida”. (Tronto, 1993:103, in Paperman, 2011).

Bizitzari eusteko egiten ditugun jardueraz ari zaigu Tronto lan honetan, eta baita elkar eusteko sareez ere, hala, zaintza elkarri eusteko beharrezko zaigun jarduera bat dela irudikatuz. Zentzu honetan, gutako bakoitzak bizitzaren momentu guztietan biziraun ahal izateko ezinbesteko dugun jarduera bat litzateke zaintza, nahiz eta bizitzako une denetan intentsitate berekoa ez izan (Pérez de Orozco eta López Gil, 2011), guztion zaurgarritasunean oinarritzen dena.

Zaintza kontzeptuaren inguruko debate handia dago haren mugei eta ertzei dagokionez, izan ere, sarritan, zabaltzearen zabaltzeaz, kontzeptuaren mugak gehiegi lausotu baitira, harekin operatibo izatea zailduz, zaintza ia edozein giza harreman dela iritziz. Baina kontrako mugimenduak ere ez digu bidea errazten, aitzitik, zaintza ariketa mekaniko bilakatzen baitu, haren ezaugarri den emozionalitateari tokia kenduz (Pérez de Orozco eta López Gil, 2011). Eztabaida hau ez dut lan honetan garatuko baina bereziki garrantzitsua iruditzen zait zaintzaren kontzeptua testuinguru historiko eta kultural zehatz batean kokatzea, zentzu honetan, beharrezkoa da, zaintza sistema kapitalista eta patriarkalaren baitan ulertzea, Estebanen (2017) ekarpenei tiraka unibertsalizaziorako joera gailentzen baita bestela:

“es habitual considerar que en cualquier contexto se producen y se organizan de la misma forma esas tareas referidas a la atención física y emocional a las personas, sin darnos cuenta de que corresponden a una organización social y económica histórica concreta, donde se proyectan modos de producción y socialización en los que las mujeres son orientadas a la reproducción y el cuidado de los otros” (Esteban, 2017:39)

Emakumeen arduraren bilakatzen da beraz zaintza sistema kapitalista eta patriarkalean. Baina ez hori bakarrik, zaintzaren bidez, hein batean, eraikitzen dira emakumeak (eta gizonak), izan ere, emakumeak (eta gizonak) *egin* egiten baitira (Beauvoir, 1949). Produzitu

egiten dira, dominazio sistema jakin baten bidez zeinak kapital forma ezberdinak erauzten dizkien emakumeei (Goikoetxea et al, 2020). Hau da, gizonek kapitalak (ekonomikoa, soziala, kulturala eta sinbolikoa) sortzen dituzten jarduerak egiten dituzte eta era berean, gizonek egiten dituztelako sortzen dute kapitala jarduera horiek, emakumeei esleitutako jardueren kasuan kontrakoa gertatzen da (ibidem). Zaintza, beraz, kapitalik sortzen ez duen, eta, hortaz, botererik ematen ez duen jarduera da testuinguru honetan.

Behin oinarrizko abiapuntu hauek ezarrita, zaintza aztertu ahal izateko honek dituen dimentsioak aletzen saiatuko naiz, ondoren, dimentsio horietatik ikergaia aztertu ahal izateko. Analitikoki, hiru dimentsio bereiz ditzakegu, eguneroko praktikan nahasten direnak: materiala, subjektiboa eta politikoa. Dimentsio materialaz ari garenean ekintza konkretuez ari gara, kuantifikatu daitekeen horretaz, izan ere, zaintzea, dimentsio materialean, besteren bizitzari eusteko “zerbait konkretua egitea” (Molinier eta Legarreta, 2019) baita. Dimentsio subjektiboari dagokionez, garrantzitsua da ohartzea zaintza lanak ez direla ekintza konkretu eta une konkretuetan hasi eta bukatzen, izan ere, zaintza lan horiek harreman zehatz batzuen baitan gertatzen baitira eta harreman horiek “beharrezkotasunak, konpromisoak, konfiantzak eta lehialtasunak” (Daly eta Lewis, 2011: 228) ezaugarritzen baititu. Harreman horiek zaintza lanetan duten garrantzia azpimarratzen lehenak izan zen GEDISST soziologo frantsesez osatutako ikerketa talde aitzindaria, 1983an sortu zena (Carrasco, Borderías eta Torns, 2011).

Zaintza lanak ezartzen dituen harremanez gain, zenbait autorek defendatu izan dute zaintzak etika zehatz bat itxuratzen duela, Gilligan-ek (1982) *etika femenino* izendatu zuena. Ezin uka daiteke edozein lanek gure subjektibitateak eraiki eta eraldatzen dituela, baina ulerkera esentzialistetan erortzeko arriskutik ihes egin beharra daukagu, zaintzaren etika *femeninotik* etika *feminista* batera salto egiteko, lehenari baliorik kendu gabe baina helburu politiko gisa desagerraraziz. Hala, azaleratzen da zaintzaren hirugarren dimentsioa, dimentsio politikoa. Aipatu dugu jadanik zaintza harreman zehatz batzuetan ezartzen dela, jakina, harreman horiek dominazio eta botere harremanek zeharkatzen dituzte. Lehenago aurreratu bezala, kapitalik sortzen ez duen jarduera da zaintzarena, lan banaketa sexualean oinarritzen dena eta beraz, zaintzaren dimentsio politikoari erreparatu beharra diogu aldaketarako bidean.

Orain arte landutako autoreek zaintzaren kontzeptualizazioari egindako ekarpenak eta zaintza lanen banaketak eragiten dituen dominazio harremanak kontuan hartuta, gizarte aldaketa eragiteko eta aldaketa horretan zaintzak duen garrantzia aztertzekeo tartea hartuko dut segidan. Azken urteetan zaintzak eta merkatuaren ordeztasunak erdigunean kokatzearen

ideiak indar handia hartu du Euskal Herriko mugimendu feministaren baitan, horren erakusgarri dira, esaterako, 2019ko martxoak 8an Euskal Herriko mugimendu feministaren greba deialdiaren leloa: “Heteropatriarkatu kapitalistari planto! Bizitzak erdigunera!”, urte bereko azaroan egindako Euskal Herriko jardunaldi feministetan osatu ziren lau mahai-inguruetatik batek “bizitzak erdiguneratzeko agenda partekatua eta burujabetza” izenpean, besteak beste, zaintzak mintzagai eduki izana, edota Covid-19aren testuinguruan “Bizitzak erdigunean: Euskal Herriko koordinadora feminista” sortu izana. “Bizitzak erdigunera” ekartzeko planteamendua akademiatik ere bazetorren urte batzuk arinago ordea, ekonomia feministaren eskutik Carrascok (2006) eta Pérez Orozco-k (2014) ondu dute kontzeptu hau “kapitala-bizitza” (Pérez Orozco, 2014) kontraesanean oinarriturik eta bizitza sostengarriak (Carrasco, 2001; Bosch, 2005; Pérez Orozco, 2005) eraikitzeke bidean.

Hala ere, zaintzen erdiguneratzerako joera hau ez da soilik mugimendu feministan gertatu, beste hainbat sektoretatik ere bultzatu da, hala nola, sindikalgintzatik, 2017ko Bizkaiako erresidentzietako grebak eta ondorengo protesta aldiek erakusten duten eran (Irureta, 2019). Produkzio akademikoak eta herri mugimenduak jokatu duen paperaz ohartzea ezin bestekoa da, izan ere, herri mugimenduak ez baitira diskurtso eta praktikak hutsaren gainean eraikitzen hasten, aurretiko mugimenduetan oinarritzen dira, aurrekoen iritziez hornitu eta Sztompkaren hitzetan “sobre su base añade innovaciones, pero nunca produce su sistema ideológico de la nada” (1995: 315). Azken urte hauetan hartu duen protagonismoak erakusten digu Covid-19aren testuingurutik kanpo ere, aurre egin beharreko afera zela zaintzarena, eta pandemiak jadanik existitzen ziren gabeziak muturreraino eramanez ez dituela egin.

2) Kapitala eta bizitza: muturrera eramandako kontraesan bat

Maila akademikoan, baziren *zaintza krisiaz* ohartarazten hasi zitzaizkigun zenbait autore (Pérez de Orozco, 2005; Ezquerria, 2011; Comas D’Agemir, 2014). Zaintza krisiari bi oinarritzko definizio esleitu behar zaizkio, biak hala biak beharrezkoak eta osagarriak direnak. Lehena Ezquerrak (2011) adierazitakoa: “la puesta en evidencia y agudización de las dificultades de amplios sectores de la población para cuidarse, cuidar o ser cuidados.” (2011: 176) Eta bigarrena, Pérez Orozcok azpimarratzen duena eta aurrekoaren ondorio izan litekeena: “un proceso de reorganización en la forma de cubrir la necesidad de cuidados de la población” (Pérez Orozco, 2005:08). Berrantolaketa, hori da definizio honen pieza

beharrezko bat, esku artean dugun ikergaiari dagokionez gaia atzera hartzeko aukera ematen diguna. Lehenago zaintza krisiaren nondik norakoak era sakonagoan aztertzea dagokit, ordea.

Lehenengo, zaintza krisiaren afera mahai gainean jarri den gaia dela aprobetxatuz, protagonismo horren zergatiak argitzen saiatuko naiz, ondoren, zaintza krisian eragin zuzena duten faktoreak kontuan hartu eta azkenik, krisiak inposatzen digun egoera zein den ulertzeko. Izan ere, zaintza krisiak, Covid-19aren garaian eztabaida publikora salto egin baldin badu, ez baita, bat batean, zaintza sistema justu bat eraikitzeke apustua egin nahi delako, baizik eta zaintza sistema muturreraino eramaten denean, huts egiten duenean, sumatzen dugulako haren falta. Molinier-en hitzetan: “de su invisibilidad depende su éxito” (2018: 193), ondo egiten den horietan ikusezina egiten den lana da zaintzarena. Covid-19ak eragindako pandemiaren garaian baina, ezinezkoa egin zaigu gure bizitzari eusten dieten zaintza lanei ezinikusiarena egitea.

Zaintza krisia zenbait egiturazko aldaketak eragin dute, hala nola, aldaketa ekonomiko, demografiko, politiko eta sozialek; hala, esparru publiko eta pribatuaren arteko banaketa zalantzan jarriz (Ezquerria, 2011:176), zentzu honetan, esan genezake, egiturazko krisi baten aurrean kokatzen gaituela zaintza krisiak. Comas D’Agemirrek (2014) bost oinarrizko faktore nabarmentzen ditu zaintza krisiaren kausa gisa: emakumeen presentzia lan arloan eta arlo publikoan orokorrean, hiri bizitzaren atomizazioa, babes sareen zatiketa eta haustura, gizonen inplikaziorik eza eta, espainiar Estatuaren kasuan, politika publikoen ahultasuna. Baina krisi honek, eragozpenak eta potentzialtasunak dakartza berekin (Ezquerria, 2011): eragozpenak, zenbait bizitzari eusteko ezintasunak agertzen dituelako, eta potentzialtasunak, krisiak aldaketarako posibilitatea agertzen duten momentuak direlako, izan ere, krisi horietan “lo viejo muere y lo nuevo no puede nacer” (Gramsci, 1981:37). Eragozpenei dagokienez, kontuan izan behar dugu, zaintza lanak era desorekatuan banatuta dauden eran (Molinier eta Legarreta, 2019:166) zaintzarako eskubidea ere era ezberdinean dagoela banatua, krisi egoeran ezberdintasun hauek muturreraino heltzen dira. Muturreraino eramán izanaren adibiderik argiena da Covid-19ak eragindako pandemiaren eta honi aurre egiteko neurrien gaineko eztabaida zeinetan argi erakutsi den osasunaren eta ekonomiaren arteko bizikidetzaz ari garela funtsean, ezinezkoa den bizikidetzaz batez, izan ere, sistema kapitalista eta patriarkalak “ez du erdigunean bizitza, ongizatea edo demokrazia, are gehiago, guztiz kontrajarriak dira” (Goikoetxea et al, 2020). Hau da, hain zuzen ere, Pérez Orozco-k (2014) bizitza eta kapitalaren arteko gatazka konpon ezina deritzona: “kapitula vs. bizitza”.

Testuinguru honetan kokatu behar dugu zaintzaren eta zaintza sistemaren egoera, sistema kapitalista eta patriarkalaren oinarri ezinbesteko gisa eta, era berean, sistema horrek berak kontraesanak handitu eta muturreraino eraman dituen egoera batean, zeinetan zaintza krisia sortu den. Orain arte bi eratan ekidin da krisi honen ikusgarritasuna handitzea: *externalizazioaren* bidez, hau da, zaintzak pribatizatuz; eta *internazionalizazioaren* bidez, hau da, zaintza kate globalak sortuz (Ezquerria, 2011). Itxialdian baina, *externalizazio* zailtasunak areagotu egiten dira, hau da, familiarizazioaren bidez, zailtasunak areagotu egiten dira berrituz ezinbestean, “batez ere eskolak eta adinekoentzako eguneko zentroak itxi ostean” (Larrañaga, 2021) eta horrek, eragin zuzena dauka etxeko zaintza lanei eskaintzen zaien ordu kopuruan. Gainera, *internazionalizazioa* ezinezko bihurtu da, migrazio fluxua, egun batetik bestera eten egiten baita (González, 2020). Nahiz eta externalizatuak zeuden lanak itxialdian berriz familiarizatzean, lan horiek nork hartzen dituen esateko daturik oraindik eskuragarri ez izan, hiru elementu hartu beharko genituzke kontuan lehen hurbilpen bat egite aldera: familiarizazioak dakartzan ondorioak, zaintza lanen banaketa eta zaintza lan batzuen izaera ludikoa.

- *Familiarizazioa:*

Espainiar Estatuak, eta beraz, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa, ongizate estatu familiaristan kokatzen ditu Esping Andersenek (2000), tipo idealen klasifikazio bat egiten du berak, familiarizazio maila ezberdinak kontuan hartuta. Haren arabera estatu familiaristek ongizatea bermatzeko lana familien gain uzten dute ia erabat, beraz, jadanik handia zen familien gain erortzen zen zaintza lana, eta itxialdiarekin handitu egiten da.

- *Zaintza lanen banaketa:*

Hala ere, zaintza lanez ari garenean, familiak bere gain hartzen dituela esatea ez da bereziki argigarria, ez baitio etxeetan gertatzen den lan banaketa sexualari erreparatzen. Denbora Aurrekontuen Inkestak interesgarriak dira zentzu honetan, argi erakusten baitute generoen arteko ezberdintasuna etxeko lanen banaketari dagokionez: “egunerokoak eta ohikoak diren lanetan (garbitzea, janaria prestatzea, arropa txukuntzea) gizonen parte-hartzea baino handiagoa da emakumeena” (Legarreta, 2015:14). Beraz, baliteke, itxialdian zaintza lanak areagotu ahala, emakumeek haien gain hartu izana lan horien gehiengo bat.


- *Zaintza lan batzuen izaera ludikoa:*

Zaintza lan guztiak ez dira berdinak ordea, ez da berdina arropa eskegi edo haurrarekin parkera joatea, adineko pertsona bat zaindu edo bazkaria egitea. Hala, nahiz eta gizonezkoek zaintza lanei dedikatutako “denbora soziala” handitu, gizon gehiagok egiten dituztelako halako lanak, Luxán eta Sagastizabalen “Generoa eta denboraren erabilera” izeneko ikerketak zera esaten digu:

“gizonen artean gauzatutako joera aldaketa honek ez du emakumeengan eragin handirik izan, etxeko lanaren nolakotasun indizeak erakutsi duen moduan, emakumeen artean ohiko etxeko jardueren karga gizonezkoen artean baino askoz ere handiagoa baita” (Luxán eta Sagastizabal, 2015: 411)

Beraz, pentsa genezake, espainiar Estatuan ezarritako Ongizate Estatuaren eredu familiaristaren eta zaintza lanetan indarrean dirauen banaketa sexualaren ondorioz emakumeek hartu dituztela itxialdia baino lehen externalizazioaren bidez familiaritik ateratako lanak. Era berean, kontuan hartzekoa da itxialdiak ezarritako baldintza etxetik ezin ateratzea izan zela eta horrek eragin zezakeela zaintza lan batzuek izaera ludikoa hartzea, zaintza lan horiek etxetik ateratzea beharrezko bilakatuz gero (erosketak egitea kasu). Zentzu honetan datu interesgarriak ondorioztatu dituzte Farré-k eta González-ek (2020) itxialdian zehar eginiko ikerketak, ondorengo grafikoak erakusten duen moduan:

1. Grafikoa: Zaintza lanen banaketa itxialdian zehar:



Farré eta González (2020) datuetatik abiatuta egindako grafikoa

Beraz, ondoriozta genezake zaintza lanak, itxialdian zehar ez direla era parekidean antolatu, baina ez hori bakarrik, datuek argi erakusten dute lehenago inolako onurarik eskaintzen ez zuen lan bat (erosketak egitea) itxialdian gizonak emakumeek baino neurri handiagoan egiten dutela, eta beraz, lan bakoitzak ematen dituzteen onurek zaintza lanen banaketan eragiten dutela. Horrek, gizonak haien gain hartzen dituzten zaintza lanen nolakotasuna aztertzen laguntzen du, zaintza lanen banaketan parekidetasunik ez dela frogatuz eta zaintza lanen banaketa justu baterako bidean, gizonak duten ardura mahai gaineratuz.

3) Komunitateak irauli dena aldatzeko

Beraz, testuinguru honetan sortzen dira zaintza sareak, Covid-19ak muturreraino eramandako zaintza krisi baten erdian, konfinamenduak norbanakoen eta komunitateen eguneroko bizitzan sortu duen goitik beherako aldaketan eta herri mugimendutik, mugimendu feministatik bereziki, sindikalgintzatik eta akademiatik hornitutako diskurtso eta iruditegi jakin batekin. Pérez Orozco-k (2005) zaintza krisiaz egiten duen definizioak argitzen du zaintza krisiak prozesu bat dakarrela harekin, zaintzaren berrantolaketa behartzen duen prozesua. Berrantolaketa hori da hain zuzen ere ikerketa honen bultzindarretako bat, egungo zaintza lanen banaketa gainditu eta beste eredu bateranzko bidean sortutako alternatiba baten azterketa.

Zaintzaren inguruko azterketa akademikoan Daily eta Lewis-ek (2000) *social care* deritzonaren aldeko apustua egiten dute, hau da, zaintza lanen antolaketa kolektiboa aldarrikatzen dute, zaintza krisi baten erdian, zaintza lanak emakumeek maila indibidualean eta familiaren instituzioaren markoan egiteak ez baitakar bestelako konponbiderik. Antolaketa horren lau hankak Estatuak, familia, merkatua eta komunitatea dira (ibidem), baina eredu justuago bateranzko pausuak eman nahi baldin baditugu, “la responsabilidad respecto al sufrimiento y la dependencia debe pasar de ser un asunto privado a ser una responsabilidad de todos y de todas” (Castro et al, 2008). Beraz, *social care* deritzon horretan, familian eta merkatuan zaintza kolektiboki antolatzeko mugak baino aurkitzen ez ditugunez, Estatuak izan behar du protagonistetako bat. Horrez gain, komunitateak ere indar handiagoa hartu behar du, baina jakina, honek ez du formula publikoen atzera pausurik eragingo, aitzitik, kontrako efektua izango du (Martínez-Virto eta Hermoso-Humbert, 2021). Beraz, Estatuari ardurarik kenduko ez dion baina komunitatean babestuko den eredu berri bateranzko pausuak ematea

ezinbestekoa da. Lehen hirurek (Estatuak, familiak eta merkatuak) dituzten hutsuneei erreparatu diegu aurreko kapituluan, beraz, goazen orain komunitatean arreta jartzera.

Komunitatea behin eta berriz agertzen zaigu Covid-19aren krisian, komunitate imajinatu gisa alde batetik, desira eta utopia gisa, itxialdiak eta zaintza krisiaren kausatako bat den “babes sareen haustura eta zatitzeak” (Comas D’Agemir, 2014) bakardade sentsazioa dakarrelako eta Riesman-en hitzetan: “la experiencia de la alienación, de la soledad y de la falta de raíces [...] evoca un anhelo de comunidad, de solidaridad de estar juntos” (Riesman 1961, Sztompka 1995:308). “Baliabide” gisa ere agertzen da ordea komunitatea (Gago, 2018), itxialdian zehar biziraupena bermatzeko beharrezko izan den tresna gisa. Izan ere, “es un espacio de intervención estratégico donde hay interacción, participación de distintos actores y se desarrollan dinámicas recíprocas de acompañamiento y apoyo social” (Martínez-Virto eta Hermoso-Humbert, 2020:15).

Zentzu honetan komunitatea bizitzari eusteko baliabide izan daiteke gainerako baliabideek huts egiten dutenean, kontuan izan behar baitugu zaintza lana, gainerako guztia gelditzen denean, beharrezko izaten jarraitzen duen hori dela, inoiz gelditzen ez den lan hori (Molinier eta Legarreta, 2019). Zaila da zaintza komunitarioa non hasi eta non bukatzen den jakitea, oso heterogeneoa den espazio batera garamatzalako ezinbestean (Martínez-Buján eta Vega, 2021). Zentzu honetan esperientzia asko daude aniztasun hori erakusten dutenak:

“Existe una multiplicidad de experiencias colectivas de cooperación que le dan forma a lo que conocemos como cuidado comunitario (varios en Vega, Martínez-Buján y Paredes, 2018), desplegadas en contextos culturales, políticos, sociales y económicos disímiles, que por ello son diversas en cuanto a sus objetivos, recursos, infraestructura y perfiles de actores que los motorizan: bancos de tiempo, grupos de apoyos mutuo, agrupaciones para la crianza compartida, comunidades que cuidan comunes salvaguardando saberes y memorias, comedores y merenderos, postas de salud, entre otras.” (Rosas eta Gil, 2021: 2)

Horregatik, definizio hertsietatik ihesi eta aurretik landutakoa kontuan hartuta, familia nuklearraren, merkatuaren eta Estatuaren egituretatik kanpo eta maila lokalean artikulatutako mugimenduak izendatzeko erabiliko dut nik komunitarioa terminoa. Draper-ek komunitarioaz eta, bereziki, zaintza komunitarioaz egiten duen definizioari jarraituz:

“Se trata de una lengua menor desde la cual se tejen líneas de fuga hacia otra forma de vida, articulando prácticas sociales desde redes de solidaridad, ayuda mutua y cooperativismo en medio del universo capitalista.” (Draper-ek 2018:167)

Borroka politikoak “bizitzaren, egunerokotasunaren eta bizimoduen esparruan” ezarriko dituzte 68 maiatzaz geroztik ezker berriek (Mezzadra eta Neuman, 2019). Horrek aukera bat eskaintzen du gizarte antolaketa berri honetan, zeinetan kontrola eta zapalkuntzak maila guztietan ezartzen diren, hasi merkatuaren logikatik eta egunerokotasuneko harremanetan bukatu arte, erresistentziak ere leku horietatik guztietatik antolatzen.

Espainiar Estatuaren testuinguraketa egite aldera erabilgarria da oso Martínez eta Vega-k (2021), beste hainbat autoreri jarraituz (Carbonell, Gálvez eta Rodríguez, 2014; Martínez eta Vega, 2021-en aipatua) egiten duten irakurketa. Haien hitzetan Ongizate Estatu berandu eta era mugatua ezarri zen espainiar Estatuan, eta horrek, komunitatean antolatutakoari pisua kendu zion. Ondoren, 2008ko krisiaren eztabaitik aurrera, “auzi sozialerako buelta” gertatzen da, baina ez da “forma politiko klasiko”-etarako bueltarik gertatzen (Mezzadra et Neumann, 2019). Ordura arte ez da espainiar Estatuan proiektu komunitarioen loratzerik egongo, izan ere, halako erantzun egoerak baitira, espainiar Estatuako 15-M mugimendua kasu, komunitatearen horizonteetara begira jarriko gaituzten uneak (Draper, 2018). Forma klasiko horien iraultzeak, eredu ireki eta lausoen zabaltzeak (zurrun eta koherenteen orde) (Esteban, 2015; 2020) eta ekintza politiko nahiz subjektu politikoak ulertzeko eraldaketak, praktika politiko berriak eraikitzeak aukerak eskaintzen ditu (Esteban, 2020). Horietako bat litzateke zaintza sarearena ere, zaintzak era kolektiboan antolatzen gainerako saiakerekin batera.

Zaintza era komunitarioan antolatzerakoan baina, ezin dugu “komunitatea, komunitarioa edo komuna den hori” aurre ezarritako egitate gisa ulertu, oinarrizko osagai gisa bai, baina baita proiektu horien ondorio gisa ere, praktikaren bidez eraikitzen doan fenomeno gisa (Martínez eta Vega, 2021). Hala, komunitarioa “aurkikuntza” gisa ikusteari uztea garrantzitsua da, aurreko estrategia politikoek huts egitean deskubritutako giltzarri balitz bezala ikustea (Gago, 2018). Izan ere, komunitateak eraldaketarako tresna posible bat izateak komunitatea bera eraiki eta eraldatu behar baitu, haren ulerkera hertsia eta esentzialistetatik urrunduz eta praktika politikoaren bidez berrasmatuz. Gagoren hitzetan ezinbestekoa da komunitarioa aldaketarako teoria gisa ulertzea:

“la noción de lo comunitario como teoría del cambio, donde la cuestión reproductiva de los cuidados toma un papel político clave en tanto se evidencia como recurso a la vez de los momentos de crisis y resistencia abierta pero también como engranaje de unas flexibles formas productivas que lo ponen en juego, evidenciando ser un campo en disputa.” (Gago, 2018: 76)

Ondorioz, begirada horretatik jarriko dugu arreta zaintza sareetan, krisi egoeran sortzen diren proiektuak direla jakinda eta komunitateen etengabeko osatze eta berrosatze prozesuez jakitun. Borrokatu eta eraiki beharrekoa deritzogu komunitateari, ez emanda datorren zerbait, baina aldi berean, praktika politiko berriak eraikitzeko espazio izan litekeena eta bereziki zaintzari leku egiten diona.

Metodologia

1) Kokapen epistemologikoa

Ikerketa soziologikoak egitea sarri da gure burua ikertzea, gure burua errealitate sozialaren iskina batean jarri eta bertatik begiratzea gertatzen ari den horri. Ikerketa honen kasuan, denok bizi izan genuenez itxialdia, badakigu, bakoitzak bere prisma propioetik bada ere, zein izan ziren garatu ziren dinamikak eta nola sortu ziren zaintza sareak gutako askoren inguruan. Horrek posizio pribilegiatu bat ematen digu auzian barneratzeko. Itxialdian zehar zaintza sarean hartu nuen parte nik ere, inguruko lagun eta ezagun askok bezala, baina ez nuen proiektua barnetik ezagutu. Beste toki batzuetan nenbilen orduan eta kasik berak bakarrik funtzionatzen zuen proiektu bat begitandu zitzaidan, momentuak ematen zion garrantziak bultzatua, argi zegoen errealitatea beste bat zela. Proiektua ikerketa objektu gisa hartzeko erabakiak barne gatazkarik sortu ez bazidan, ondoren etorriko ziren kezka guztiak, izan ere, ezagutzaren produkzioa problematizatzen duen eta botere harremanak zalantzan jartzea helburu duen begirada batetik ikerketari ekiteak ez baikaitu *magikoki* libratzen botere harreman horietatik (Martínez, 2019).

Ez dira gutxi izan ikerketa hau jorratu artean izandako zalantza epistemologiko eta metodologikoak, izan ere, bizi den, eta beraz, aldaketa eragiteko grina duen herri mugimendu baten ikerketa egin baitut. “Algortarrok Zaintzen” eta halako beste asko egongo dira gure inguruko herrietan, argitara ekarri ez ditugunak, inoiz ekarriko ez ditugunak, eta nik erabaki dut baietz, oraindik egituratzerik lortu ez duen proiektu baten azterketa egitera noala. Akademiaren eta aktibismoaren artean kokatzen da ikerketa hau, lehenengotik gehiago urrundu nahian bigarrenetik baino, biek ematen dizkidaten tresna baliagarriez jakitun. Zaila da mugak ezartzea ordea, ez dut inoiz zalantzarik antzeman mugimenduaren parte diren pertsonen artean, baiezko borobilak jaso izan ditut beti eta besoak zabalik hartu naute edozein tokitan. Jarrera horrek lagundu nau dudak uxatzen, beste hainbestek egin duten eran, nik ere herri mugimenduari ekarpenen bat egin diezaiokedala sinisten. Espero dut Celia O. Rodriguez-ek (2017; Martínez-ek, 2019 aipatua) *masturbazio intelektual*a deritzona saihestu ahal izana, proiektuarekiko jarrera estraktibistaz jardun ez izana, kontziente bainaiz zenbait ikerketa akademikok halako ikerketa jarrerak sustatzen dituztela (Mogollón, 2020). Maila akademikoan ezer gutxi eskaintzeko gai baldin banaiz, ikerketa honek aukera eman dit proiektura hurbiltzeko, hainbestearaino non, Gandariasek (2014) ohartarazi zuen eran, barruan bukatu baitut azkenean.

2) Ikerketaren helburuak

Aurretik aipatutako zalantzak medio, herri mugimenduarentzako ere erabilgarria izan zitekeen analisi bat egitea izan da nire helburua, halako esperientzia bat jasota uztea bera ekarpen bat izan liteke, eta baita proiektuaren sortzean paper garrantzitsu bat jokatu duten faktoreak aztertzea ere. Hala, proiektuarentzako erabilgarri izan daitekeelakoan, sarearen biziraupenaren alde eta kontra jokatu duten faktoreak ezagutzea izango da ikerketa honen nahia. Ondorengoak dira beraz ikerketa honen helburuak:

- Zaintza sareen sorreran erabakigarriak izan ziren faktoreak ezagutzea, hala nola, aurretiaz existitzen zen komunitateak izan duen garrantzia eta itxialdiaren eragina nolakoa izan den ezagutzea.
- Itxialdian zehar, zaintza sarearen iraupenerako garrantzitsuak izan diren alderdiak ezagutzea, batez ere, elkarreraginean sortutako harremanen ondorioetan eta zaintzari berari ezarritako mugen nolakotasunean jarriz begirada.

3) Ikerketa teknikak eta landa lana

Itxialdia bukatzean Antropologia Feministako Ikerketa Taldean hasi nintzen elkarlanean Ikasiker 2020-2021 bekaren bidez. Horrela ekin nion zaintzaren bideetan murgiltzeari, ikerketa taldeko kideei esker, batez ere, Matxalen Legarreta eta Marina Sagastizabali esker. Haiek nagusien egoitzak ikertzen aritu dira nik ekimen kolektiboak aztertu artean. Aurtengo urtean beraz haiekin jardun dut, eta hein handi batean GRAL hau haien eta beste hainbesteren lana ere bada. Aipatutako bekari esker aukera izan dut Universitat Rovira i Virgiliko Dolors Comas D'Agemir-ek koordinatutako "CUMADE: El cuidado importa. Impacto de género en las cuidadoras/es de mayores y dependientes en tiempos de la Covid-19" ikerketan parte hartzeko. Covid-19ak zaintzan lan egiten duten pertsona horien gain izan duen eragina aztertzeaz batera, langileen artean urgentziazkoenak diren beharrei erantzuteko proposamenak egitea eta genero perspektiba analisisian txertaturik, krisitik atera ahal izateko bideorria egiteko zenbait ildo markatzea da proiektuaren azken helburua.

Ikerketa horretan zaintzaren esparru ezberdinak aztertu dira eta horietako bat izan da zaintza komunitarioarena, jakin nahi baikenuen nola erantzun zioten zaintzan aritzen ziren proiektuek halako egoera bati, zein baldintzatan utzi dituen pandemiak. Itxialdia hasi eta zenbait lekutan sortutako proiektuek ordea kuriositatea sortu ziguten eta hala ekin genion

zaintza komunitarioaren munduan murgiltzeari Madrileko, Granadako eta Estatuko beste zenbait lekutako ikertzaileekin batera. Ikerketa horri eginiko nire ekarpen txikia da “Algortarrok Zaintzen” proiektuaren berri eman eta haren nondik norakoak zein izan diren aztertzea. Halako proiektu batean lan egiteak beharrezko oinarriak ezarri dizkit esku artean duzuen GRAL hau egin ahal izateko eta lanean jasota dauden elementu askoren inspirazio iturri izan da.

“Algortarrok Zaintzen” zaintza sarea hautatu dut zaintza sareak ikertu ahal izateko, alde batetik, hurbilekoa zaidan sarea delako, eta horrek, aurrez aurreko elkarrizketak egiteko zailtasunak biderkatu diren une batean (espazio publiko itxiak itxita eta espazio pribatuetan elkartzeko ageriko mugekin) kontaktazio prozesua eta elkarrizketak egitea asko erraztu dit. Halaber, analisirako interesgarria zitzaidan antolaketa era bat izan zuen sareak, auzoka deszentralizatuak, eta ondorioz, zaintza sare bakarra aztertuta ere, auzo bakoitzeko baldintzak eta esperientziak ezberdinak izanda eta proiektu berean egon direnez, konparagarri izan zitezkeelako.

Beraz, behin nire ikerketa objektua definiturik, sakoneko elkarrizketaren bidez jaso nituen proiektuan parte hartu zuten eta errealitatea irakurtzeko posizio bereizi bat zeukatela uste nuen lau pertsonaren bizipen eta diskurtsoak. Sakoneko elkarrizketak erabili ditut haien diskurtsoak eta errelatoa jasotzeko erarik zuzenena izan dela uste dudalako. Norberak bizipen propioak zituen neurrian eta kontuan harturik itxialdiaren amaieratik zenbait hilabete pasa zirela elkarrizketak egiten hasi arte, haien errelatoa ahalik eta ondoen eraikitzen eta elkarrizketatuen erritmora elkarrizketa ondoen egokitzen duen teknika da. Hiru izan ziren elkarrizketatuekin kontaktatzerakoan kontuan harturiko elementuak: generoa, auzoa eta zaintza sarean izan zuten parte hartzearen nolakotasuna. Uste bainuen hiru elementu horiek bereizgarriak izango zirela, diskurtsoetan ezberdintasunak igarriko nituela eta modu eraginkor bat eskaini ahal zidatela zaintza sarearen mapa bat osatu ahal izateko.

Lau elkarrizketatuetatik bi dira emakumeak, beste bi gizonak, zaintza sareak zeuzkan maila ezberdinetan kokatzen dira eta haien artean ezberdinak diren auzoetan garatu dute proiektua: lehenak Azkorri, herriaren erdigunetik urrunen eta baserri tankerako etxez osatutako auzoan; bigarrenak zentroan; eta hirugarren eta laugarrenak Malakaten, langile izaera handiena eta auzo sentimendu gehiena sortzen duen auzoan. Laurek dauzkate unibertsitate ikasketak eta hasieratik parte hartu zuten “Algortarrok Zaintzen” proiektuan.

2020ko irailetik azarora egin nituen elkarrizketa guztiak, momentu hartan zaintza sareak geldirik zeraman itxialdia amaitu zenetik. Ondorengoak izan dira elkarrizketatuen profilak:

Taula 1. Sakoneko elkarrizketen parte-hartzaileen profilak:

	Adina	Generoa	Auzoa	Zaintza sarean izan zuten parte-hartzea
Asier	27	Gizona	Azkorri	Koordinatzaile nagusia
Irene	21	Emakumea	Zentroa	Auzoko koordinatzailea
Cristian	27	Gizona	Malakate	Auzoko koordinatzailea
Maialen	40	Emakumea	Malakate	Parte-hartzailea

40 minutu iraun du elkarrizketarik laburrenak eta 75 minutu luzeenak. Elkarrizketa guztiak elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen arteko aurretiazko akordioan oinarritu dira, anonimotasuna bermatuz eta baimen informatuak¹ erabiliz. Gainera, kontuan izanik niretzako hurbileko proiektu bat zela, elkarrizketak ere halakoak izan dira, konfiantzan eta ezagutzan oinarrituak. Bertan bakoitzak proiektuan eginiko ibilbideaz, Covid-19ak proiektua martxan jartzeko mugez, zaintzaz zuten ikuspegiak eta sarearen etorkizuna baldintzatu duten faktoreez aritu nintzen elkarrizketatuekin. Ondoren, haien ustez zaintza sisteman egin beharreko aldaketak eta eskura ditugun alternatibak zein diren jakiteko.

Galdera horien bidez² jakin nahi izan dut nola eta zergatik sortzen diren zaintza sareak, nola lortzen duten egoera horretan bizirautea eta eginiko galderak faktore horiek zein izan daitezkeen argitzera datoz. Nahi eta nahi ez elkarrizketa guztiak izan dira ezberdinak, gidoia hartu dut oinarri, baina elkarrizketatuaren hitz egiteko nahiaren eta bakoitzak zeukan informazioaren arabera sakontasun handiagokoak dira zenbait zati elkarrizketa batzuetan. Elkarrizketa guztiak gaztelaniaz egin ditut, nahiz eta elkarrizketatu guztiek euskaraz jakin, elkarrizketa hauek “CUMADE: El cuidado importa. Impacto de género en las cuidadoras/es de mayores y dependientes en tiempos de la Covid-19” ikerketan ere aztertu direlako eta

¹ Baimen informatua “Eranskinak” atalean ikusgai.

² Elkarrizketen gidoia “Eranskinak” atalean ikusgai.

euskararik ez zekien ikerketa talde batera moldatu behar izan dudalako nire lana. Ondorioz, elkarrizketarako erabilitako gidoia ikerketa taldean erabilitakoa da.

Zentzu honetan, oztopo izan da aipatutako ikerketan aritzea, izan ere, elkarrizketatuen eta nire arteko harremana era naturalean euskaraz garatzen baita eta horrek arrarotu egin du zentzu batean elkarrizketa, nolabaiteko distantzia bat sortuz elkarren artean. Gainera, elkarrizketatuetako batek bereziki, gaztelaniaz era formalean egiteko zailtasunak adierazi ditu eta zenbait elkarrizketatan euskarazko hitzek ihes egin dute gaztelaniazko esaldien artean. Oztopo horietaz haratago, lan hau garatzeko garrantzizkoak izan diren elementuak jaso ditut ikerketatik, Estatuko beste leku batzuetan halako proiektuak nola garatu diren jakin ahal izateko aukera izan baitut, eta hala, horien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak identifikatu ahal izan ditut analisi lerro berriak sumatze aldera.

Jakina, ez da nire helburua beste edozein errealitatetara aplikatu litekeen ezagutza bat sortzea, proiektuen gainean kokatu eta horiek nola funtzionatzen duten jakin dezakedanik ez dut uste. Ikerketa honek atzean duen posizioa da positiboa dela herri mugimenduek funtzionatzen dutenean, huts egiten dutenean, birformulatzen direnean, zergatik egin ote duten jakitea, mugimenduari berari ere erabilgarri zaion informazioa sortze aldera. Partzialtasunez beteriko ikerketa da hau beraz, proiektu honetan parte hartu zutenek eta hartzen dugunok azaldu ahal izan duguna, gure errealitateari eta gure errelatoari erantzuten diona, eta horregatik, ez biribila, ez osatua eta ez osoa, eraikitzen doana baizik.

Zaintza komunitariorako tresnak nondik eta nola sortu

1) Proiektuaren kokapena

Ikerketa honen helburua zaintza sareak sortzeko, denboran zehar irauteko eta hemendik aurrera bide berriak arakatzeko izan dituen arrazoiak eta mugak aztertzea da. Horretarako, lehenik, proiektuaren sorreran erabakigarriak izan ziren faktoreak aztertuko ditut, eta ondoren, itxialdiak iraun zuren bitartean proiektuaren sostengagarritasuna bermatu zuten baldintzei erreparatuko diet. Analisisian guztiz murgildu aurretik ordea zaintza sarearen oinarritzko ezaugarriak ezagutzea ere ezinbestekoa da.

“Algortarrok Zaintzen” zaintza sarea 2020ko martxoaren 14an espainiar Estatuan alarma egoera ezarri eta egun gutxian sortzen da, zaintza sareak oso denbora tarte laburrean biderkatu ziren unean (Redacción Hordago, 2020). Asierrek (27 urte, koordinatzaile orokorra) emandako informazioan oinarrituko naiz zaintza sarearen erradiografia orokor bat egin ahal izateko. Proiektuaren sare izaera kontuan hartuta, zaila da lerro gutxitan egitura osoa azaldu eta haien arteko komunikazioak era ulergarrian erakustea, hala ere, lehen hurbilpen bat egiteko beharrezkoa da ulertzea, auzoka deszentralizatu zela sarea, hamar auzotan banatu zen zehazki eta auzo bakoitzak bere inguruko zerbitzuak betetzen zituen, auzo bakoitzak Whatsapp talde bat zuen eta talde horretatik eskatutako zerbitzuak komunikatu eta banatzen ziren. Zaintza sarean funtzio ezberdinak bete zituzten pertsonak egon ziren, bost profiletan bana ditzakegunak:

- Zaintza sarearen lanak eskatu zituzten pertsonak (hartzaileak): bakoitza bizi zen auzoaren arabera zegokion telefono zenbakira deituz komunikatzen ziren beharrak, dei horiek auzoko koordinatzaileak jaso eta Whatsapp taldearen bidez koordinatzen zituen.
- Lanak betetzen zituzten pertsonak (emaileak): auzo bakoitzeko Whatsapp taldean zeuden pertsonak ziren, talde horren bidez helarazten ziren egin beharreko lanak.
- Auzoko koordinatzaileak: sarearen laguntza behar zuten pertsonen deiak jasotzeaz eta horiek parte hartzaileei Whatsapp-ez helarazteaz arduratzen ziren.
- Koordinatzaile orokorrak: parte hartu nahi zuten pertsonen izen emateak jaso (emailez) eta bakoitza zegokion auzoan antolatzeaz, eta orokorrean, koordinazio eta komunikazio lanez arduratzen ziren.

- Osasun protokoloak egiteaz arduratu ziren osasun langileak.

Osozara 300 parte-hartzaile inguruk osatu zuten zaintza sarea, zerbitzuak eskatzen zituzten pertsonak (hartzaileak) kontuan hartu gabe eta itxialdiaren lehenengo egunetatik itxialdiaren amaierara arte funtzionatu zuen. Hala ere, era honetako zaintza sare baten sorrera ezin daiteke soilik itxialdiaren eta gainerako zaintza sareen sorreraren ondorio huts gisa ulertu. Zaintza krisi globalago baten (Pérez de Orozco, 2005; Ezquerria, 2011; Comas D'Agemir, 2014) erdian sortutako biziraupen tresna gisa ulertu beharko genuke eta zaintza krisi horrek sortu duen testuinguruari hertsiki loturik. Gainera, komunitateak berak aurrez zituen baldintzak ere erakigarriak izan ahal izan ziren zaintza sarearen agerpenean.

2) Zergatik orain? Zergatik hemen?

Galderak mila hipotesi dakarzkigu gogora, ohartzen garelako ez dela edonon izan, ez dela edonoiz gertatu eta adierazten digulako komunitate jakin bati eta denbora jakin bati hertsiki loturik dagoen proiektua izan dela. Kapitalaren ondorioz ekintza edo ekimenak ez dira zori hutsez gertatzen (Bourdieu, 2001), hala, sareak ez dira ezerezaren gain sortzen, komunitate zehazetan sortzen dira. Kasu honetan, “Algortarrok Zaintzen” zaintza sarea Getxon (Bizkaia) sortzen da, zehazki, Getxoko auzo batzuetan. Horrek azpimarragarri egiten du Getxok dituen baldintza oinarritzoei ere erreparatzea, zaintza sarea sortu zen testuinguruaren irudi zehatzago bat izate aldera. 80.000 biztanleko herria da Getxo, Bilbo Handia deritzon eskualdean kokatua dagoena. Hala ere, zaintza sareak ez du Getxo osoan funtzionatu, Algortan eta inguruko auzo txikiagoetan antolatu da, hau da, 40.000 biztanle inguruko espazio batean. 65 urte baino gehiago duen biztanleriak biztanleria osoarekiko duen pisua ere garrantzitsua da, izan ere, haiek baitira, beste zenbait talde espezifikoaren artean “arrisku talde” gisa kategorizatuak izan zirenak, eta beraz, zaintza sarearen beharra izateko probabilitate handiagoa zutenak. Getxoren kasuan 65 urte baino gehiago dauzka biztanleria osoaren %25,46ak, EAE-n %22,91koa da talde honen pisua (Eustat, 2020).

Halako proiektu bat martxan jartzerakoan, kokatu den espazioa eta sortzeko izan dituen baldintzak kontuan izatea ezinbestekoa da, Sztompkaren hitzetan: “la estructura preexistente (organizacional) [...] produce el campo de constricciones así como de facilitadores del movimiento” (1995: 316); beraz, alde zuzeneko egitura da zailtasunak eta aukerak eragin dituzten baldintzen gordailua. Bourdieu-ren hitzetan, kapital ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren metaketaren bidez erabakitzen da praktika sozialaren arrakasta, izan

ere, kapitalak onurak sortzeko gaitasuna baitu, baina baita haren burua birproduzitzekoa ere. Beraz, zaintza sarean alde zuzenetik existitzen ziren kapitalak aztertuko ditut segidan.

Kapital ekonomikoa edo egonkortasunaren garrantzia

Getxo da Euskal Autonomia Erkidegoan errenta altuena duten hamar herrietako bat, EAE-n 17.800€-koa da batz besteko errenta eta Getxon 22.670€-koa (Eustat, 2018). Elkarrizketatu batek baino gehiagok aipatzen du Getxon “jendea ondo bizi” denaren ideia eta haiek ere sarean eragina duen faktore gisa ikusten dute. Faktore hau kontuan hartzekoa da, gainerako zaintza sareekin alderaketak egiterakoan batez ere, egoera sozioekonomikoak zuzenean baldintzatzen baititu norbanakoek antolaketarako dituzten baldintzak, jakina, antolaketa politikoa klaseak ere gurutzatzen baitu, generoak, jatorriak, hizkuntzak edo adinak nola (Martínez Palacios, 2017).

Argia da kapital ekonomikoak baldintza hobek eskaintzen dituela, ez bakarrik zaintza sareak sortzeko, baizik eta beste edozein ekintzarako, izan ere, denbora eta lasaitasun iturri baita. Hala ere, kapital ekonomiko handiena metatzen den guneetan, herriaren zentroan esaterako, proiektuak ez du, kuantitatiboki, ertzetan kokatzen diren auzoetan izan duen inpaktua izan. Zentroko koordinatzailearen ustez beste auzo batzuetan hobeto funtzionatu izanaren eragina faktore sozioekonomikoa da, baliabide ekonomikoek bestelako kapitalak ere handitzen dituztelako, eta beraz, zaintza sarearen behar txikiagoa egon da auzo hauetan. Beraz, kapital ekonomikoarekin soilik ezinezkoa da halako mugimendu baten sorrera azaltzea, gainerako kapital guztiak ere mobilizatu behar baitira, eta jakina, kapitalen irakurketa hau ezin baita ulertu berriazko arrazoi gisa, aukerak sortzeko dituen gaitasunetan jarri behar da arreta. Horregatik da ulergarria Offe-k (1988) gizarte mugimendu berriei buruz egindako ikerketatik ateratako emaitza:

“[Las características] del núcleo de activistas y simpatizantes de los nuevos movimientos sociales provenientes de la nueva clase media consisten en un alto nivel de formación, una seguridad económica relativa y empleo en el sector de servicios personales” (Tejerina, 2010-en zitatua)


Zentzu honetan, itxialdiak eragindako segurtasunik eza eta egonkortasun ekonomiko falta ere kontuan hartzekoa da itxialdiari aurre egiteko eta zaintza lanak antolatzeko forma berrien garapenean. Ondorioz, pentsa liteke zaintza sareetan parte hartu duten pertsonen, behinik behin zaintza sarearen sorreran lan karga handienak izan zituzten pertsonen,

gutxieneko egonkortasun bat behar izan zutela. Izan ere, lan karga handiak aipatzen ditu, adibidez, Asierrek (27 urte, koordinatzaile orokorra) eta egoera ezin kontrolatzearen sentrazioa itxialdiaren une batzuetan.

Kapital kulturala, goi mailako ikasketen monopolioa

Kapital kulturalak ere paper nabarmena jokaten du antolakuntza politikoan, Bourdieu-k (2001) kapital kulturalak hartzen dituen hiru formei erreparatzen die batez ere, baina halako datuak Getxorako eskuratzeko zailtasunak tarteko, eta gainerako formei ez erreparatzeak dakartzan hutsunez jakitun, adierazgarri deritzot Getxoko biztanleen ikasketa maila jasotzen duen grafiko hau:

2. Grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko eta Getxoko ikasketa maila %-tan



Gizarte mugimenduetan unibertsitate ikasketak dituzten eta erdi-goi mailako ikasketak dituzten pertsonen presentzia oso orokortua da (Tejerina, 2010), eta grafikoan ikus daitekeen bezala, Getxoko biztanleria osoaren %35,87ak dauzka goi-mailako ikasketak, Euskal Autonomia Erkidegoan (%18,87) denaren bikoitza ia (Eustat, 2019). Zaintza sarearen

egituraren barnean ere fenomeno bera errepikatzen da, elkarrizketatutako pertsona guztiek dauzkate unibertitate ikasketak, eta itxialdiaren ondoren egindako behaketek erakusten duten eran, zaintza sarea berriz martxan jartzeko lanean aritu diren pertsona guztiek ere goi-mailako ikasketak dituzte. Kapital kulturala ordea, arinago esan bezala, ez da ikasketa mailarekin hasi eta bukatzen, norbanako bakoitzaren gaitasunak eta talentuak ez baitira berezko ezer, denbora eta kapital kulturalaren inbertsio dira, eta horrek, eragin nabarmena du antolakuntza politikoan, batez ere, eztabaida gehien duten eragileetan (Tejerina, 2010). Ondorioz, esan genezake kapital kulturalak ere eragiten duela gizarte mugimendu baten sorreraren baldintzak ezartzerako orduan.

Itxialdian zehar zaintza sarean aritu ziren boluntarioen ikasketa mailaren daturik ez dugu, ez eta gainerako kapital kultural maila aztertzeke erarik ere. Hirurehun parte hartzailez ari garenez kasu honetan, zentzuzkoa da pentsatzea kapital kultural ezberdineko pertsonak izan direla bertan parte hartzen aritu direnak, horregatik, eztabaida teoriko sakonetan ibili ez den proiektu bat izan izanak erraztasunak eman ahal izan dizkie parte hartzaileei. Hala azaltzen du elkarrizketatuetako batek: “tampoco se requirió una definición para formar estas redes de cuidado, o sea, nadie en ningún momento preguntó, ¿y qué es esto del cuidado?, y vamos a teorizar sobre el cuidado y no sé qué” (Maialen, 40 urte, parte hartzailea).

Kapital soziala: auzo izaera, auzoko harremanak, merkataritza txikia eta herri mugimendua

Kapital soziala harreman sozialen multzoak osatzen du, harremanek eta harreman horiek duten kapitalek. Hau da, “talde baten parte izateak” (Bourdieu, 2001) dakartzan baliabide guztiak dira kapital soziala.

“De acuerdo con esto, el volumen de capital social poseído por un individuo dependerá tanto de la extensión de la red de conexiones que éste pueda efectivamente movilizar, como del volumen de capital (económico, cultural o simbólico) poseído por aquellos con quienes está relacionado.” (Ibid, 2001:150)

Komunitateak beraz, are, komunitatean bertan aurretiaz existitzen ziren sareek, zaintza sareen sorreran paper garrantzitsua dute, auzokideen arteko aurretiazko harremana halako aliantza estrategiko bilakatzen da itxialdian, ondoren, era formalean instituzionalizatzen dena, zaintza sarearen bidez, edo ez. Gurrutxagaren hitzetan:

“[El individuo] si entra en contacto con sus vecinos (...) se producirá la acumulación de capital social que podrá (...) generar posibilidades sociales suficientes para mejorar de forma sustancial las condiciones de vida de toda la comunidad”. (2011:37)

Gogora dezagun harremanak instituzionalizatu egiten direnean, taldeari izen bat jartzen zaionean adibidez, bertan garatzen diren harreman sozialak indartu egiten direla, hala, pertenezia sentimendu bat sortzen baitute taldekideek. Beraz, pentsa liteke, zaintza sarean ere halako mekanismoak aktibatzen direla. Lehenago era ez instituzionalizatuan garatzen ziren zenbait harreman zaintza sarearen bidez gertatzen dira orain, baina hori baino garrantzitsuagoa dena, lehenago garatzen ez ziren harremanak sortzen ditu zaintza sareak. Zentzu honetan Maialenek (40 urte, parte hartzailea) aipatzen du, zaintza sarea antolatua aurretik, itxialdia ezarri eta berehala, haren inguruko auzokideei esan ziela zerbait behar izatekotan laguntzeko prest zegoela. Laburbilduz, zaintza sarearen egituraketan beharrezkoak dira aurretiazko aliantzak eta aliantza horretatik eratorritako elkartasuna. Auzo izaera eta auzoko harremanak, merkataritza txikia eta herri mugimendua dira aurretiazko aliantza eta elkartasuna gertatzen diren bideak elkarrizketatuen iritziz, hurrenez-hurren jasotako errelatoetan islatzen den moduan :

“Personalidad de barrio o gente que se, gente cercana, que se conoce y que tiene ya, antes del confinamiento también maneras o alguna costumbre de funcionar en el barrio o de saber ¿no? Un entendimiento de... De lo que es un barrio, de lo que es un vecino y de lo que es la comunidad vecinal un poco yo creo.” (Irene, 21 urte, auzo koordinatzailea)

“vive la misma gente de toda la vida, la gente se conoce, y ya seas X o J se conoce y se habla y... y por no sé, sigue siendo, yo creo que el espíritu de los barrios sigue siendo...” (Cristian, 27 urte, auzo koordinatzailea)

“para mí una cosa súper interesante es que desde su lugar (los comercios) se sentían partes también de esta iniciativa ¿no? O sea mucha gente puso los carteles en el mostrador, y entonces subrayó el teléfono que correspondía al barrio, y no sé, lo iban haciendo así ¿no? Y como yo realizo las compras habitualmente en esos comercios, pues cada vez que iba me decían, "Oye que ha llamado no sé quién" "oye que no sé quién me ha comentado que igual iba llamar ¿no?" Entonces bueno, tienes otro cotidiano, otra relación más cercana, no de confianza pero al menos más cercana” (Maialen, 40 urte, parte hartzailea)

“también teniendo en cuenta que esta iniciativa surge de gente que llevamos, vamos a decir, un poco más activo en el pueblo en diferentes iniciativas y movimientos sociales.” (Asier, 27 urte, koordinatzaile nagusia)

Beraz, baldintza hauetan sortzen da zaintza sarea, inola ere ez kasualitatez, aurrez ezarritako baldintzen ondorio zuzen gisa baizik. Baina, hala ere, itxialdi osoan zehar funtzionatzen jarraitu zuen proiektua izan zen, eta horrek, azalpen gehiagoren beharra du ulergarri izan dadin.

3) Zaintza sarea itxialdian zehar: harreman zaharretatik aliantza berriak

Aurretik esan dugu zaintza sarea aurretiazko harreman sozialak existitzen ziren toki horietan sortzen dela, baina zaintza sareak, era berean, aliantza eta elkartasuna birsortzen ditu. Hala, harreman berriak posible bilakatzen ditu eta harreman horietan elkartasunezko aliantzak sortzen ditu. Elkarrizketatu denek aipatzen dute aurretik beraien artean inolako kontakturik izan ez zuten pertsona asko ibili zela proiektuan. Baina elkartasun harreman hauek naturalizatzeko arriskuaz ere jabetu behar gara analisiaren puntu honetan. Horregatik, Bourdieu-ren analisia osatzeko eta aliantza horiek sortzen duten kapital soziala zergatik eta nola garatzen den argitzeko Casado Neira-ren (2003) dohaintzaren teoriatik joko dut, Mauss-en (1971) dohaintzaren izaera paradoxikoa (boluntarioa eta aldi berean interesatua) oinarri hartuta, halako proiektuetan emandako denbora zein interesen arabera itzultzen den argitzeko. Casado Neirak dio dohaintzak lau gainbalio mota sortzen dituela: aliantzaren gainbalioa, konfiantzarena, prestigioarena eta plazerarena, autorearen hitzetan, dohaintzan emandakoa ez da dohainik ematen, aitzitik, “se da gratis y se recibe gratitud” (2003:110).

Aliantzaren eta konfiantzaren gainbalioak: kapital sozialaren pieza bat gehiago

Aliantzaren eta konfiantzaren gainbalioek Bourdieu-ren kapital sozialaren deskribapena dakarte gogora, hala, konfiantza eta aliantza, lehenago esan bezala, halako proiektuak sortzeko ezinbesteko lehengaia dira eta hala, “lo local, y territorial, asume un especial protagonismo” (Morales, 2009:168). Hurrengo lerroetan elkarrizketatuetako batek komunitateaz egiten duen analisia jasoko dut, nahiz eta gainerako elkarrizketetan ere aipamen antzekoak agertu, oso ondo laburtzen duelako lurraldeetan kokatutako proiektuen izaera:

“Porque también valorábamos que la atención cuanto más local y más cercana era mucho más fácil. A nivel de que sí es más fácil conocer a tus vecinas de al lado y entonces en el boca boca eso ayudaba mucho. Los miedos eran menores porque al final, si conoces a la persona que te está haciendo... O que te vaya a hacer el recado, o que te va a hacer la compra... Eh, eso, es una relación un poco más cercana de lo que podría ser algo contratado o

algo a nivel de territorio histórico como puede ser Bizkaia, por ejemplo.” (Asier, 27 urte, koordinatzaile nagusia)

“una base de tú a tú, una base de necesidades básicas, de yo te apoyo tú me apoyas, de estamos todas en el mismo barco, y eso no se hace solamente pensando desde los esquemas clásicos de los movimientos populares.” (Asier, 27 urte, koordinatzaile nagusia)

Testigantza honetan antzematen da komunitateak oinarritzkoak direla halako proiektuen eraikuntzan, aurretik existitzen zen sare komunitario batera jotzen du elkarrizketatuak, beste garai batzuetan ere egoera ezberdinei aurre egiteko ezinbestekoa izan dena:

“Para mí lo primordial ha sido la base comunitaria que existe, osea existe, tenemos yo diría que una suerte muy grande de vivir en... en este caso en Euskal Herria, en un pueblo que, que ha vivido, [...] un impulso comunitario durante muchas décadas, en diferentes espacios, en diferentes épocas y en diferentes escenarios, [...] cómo ha sido capaz la iniciativa popular vamos a decir, el movimiento popular de poner en marcha proyectos, iniciativas muy comunitarias, muy desde abajo, muy desde los diferentes y es verdad que nosotras no hemos visto tanto eso, en los últimos años y décadas.” (Asier, 27 urte, koordinatzaile nagusia)

Baina ez da atzera begirako nostalgia horretan katigatzen, izan ere, komunitatea aurrera begirako proiektuak imajinatzeke espazio baita:

“Y para mí esta iniciativa o esta... justo la red de apoyo en esta primera fase ha sido como un poco la demostración de que sí, y encima diferente y encima mirando hacia delante, no solo mirando hacia atrás, existe eso, y sí, ayuda a ver y a cambiar la óptica [...] para mí en concreto en este pueblo, a día de hoy 2020 y en medio de una situación pandémica, ayuda mucho la experiencia de la red de cuidados "Algortarrok zaintzen" para entender hacia dónde tenemos que ir los próximos años en este pueblo y desde qué miradas tenemos que construir un poco los barrios y el pueblo en sí.” (Asier, 27 urte, koordinatzaile nagusia)

Beraz, komunitatea, krisi egoera “baliabide gisa” (Gago, 2018) agertzen da, bizirauteko tresna gisa, baina baita ortzimuga eta proiektu gisa ere, “borrokatu beharreko espazio” gisa (Ibidem). Horregatik, komunitatea ezin dezakegu egitate zurrun gisa irudikatu, Gagok esaten duen eran, nostalgian pentsatu ordez apustu berrietan pentsatu behar dugu, komunitatea eramango dutenak “a su reinvencción y muchas veces a su relanzamiento y desborde” (Gago, 2018). Mugimenduan agertzen zaigu beraz komunitatea, horregatik,

aurretiaz jadanik existitzen ziren aliantza eta konfiantza harremanak ez dira bere horretan geratzen, horiek birsortzeko kapaz dira eta hala adierazten du elkarrizketatu batek:

“Esto (la iniciativa) ayuda a generar comunidad” (Maialen, 40 urte, parte hartzailea)

Izan ere, konfiantzarik ezean, aliantzarik ezean, ezinezkoa baita dohaintza gertatu ahal izatea, baina dohaintzak berak konfiantza eta aliantza sortzen ditu (Casado Neira, 2003). Azken bi gainbalioek ordea, prestigioarenak eta plazerarenak, gehiago hurbiltzen gaituzte Bourdieu-ren kapital sinbolikoaren definiziora. Beraz, hori da jarraian aztertuko dudana kapital mota.

Prestigioa eta esker ona: kapital sinbolikoa metatzeko era bat?

Uki ezin daitekeen kapital hori da, Bourdieren (2001) hitzetan, kapital sinbolikoa, aurreko kapitalen metaketaren bidez sortzen dena eta ikusezintasun horren bidez dena posible. Kontuan hartu behar dugu, botere sinbolikoa, Bourdieu-k landu zuen eran, dominazioa egikaritzeko era dela, sistema sinbolikoak barneratzeko eta beraz, egituratzaileak eta egituratuak direla aldi berean. Bourdieu-ren botere sinbolikoaren definizio honek zaintza sarearen egoeratik urrundu egiten gaitu, izan ere, zaintzak era komunitarioan antolatzen saiakera gisa, kontra-hegemonikoa den praktika gisa ulertu beharko baikenuke, eta beraz, sistema sinbolikoak sortzeko gaitasunik ez duen neurrian, pentsatu beharko genuke metatutako kapital ekonomiko, kultural eta sozialak ez direla nahikoa botere sinbolikoa eskuratzeko.

Lehen apunte hau kontuan hartuta, kontziente naiz egitera noan irakurketak sor ditzakeen kontraesanak, baina, era berean, uste dut estrategikoa izan litekeela pentsatzea zein formatan egikaritzen den kapital sinboliko hori, era koiunturalean, eta beraz, ez egituratuan gertatzen baldin bada ere, botere kuota txiki bat lortzeko gai baitira halako proiektuak itxialdiaren unerik gogorrean. Posible bilakatzen dute halako proiektu bat sortu ahal izatea, eta gainera, sarearen existentzia legitimatzen baitute sistema legegilearen legitimaziotik kanpo. Ondorioz, legitimitate borroka bat sortzen da, etxetik ateratzeko debekuaren eta debeku horrek berak sortutako beharrak asetzeko praktiken artean. Hau da, legeak ez betetzea legitimo bilakatzen da une batez. Kontraesan honek zenbaitetan eztanda egiten du jakina, eta orduan sortzen dira gatazkak. Zaintza sareko kideetako batek hala azaltzen du:

“Bueno a mi fueron a la persona que le llamaron los municipales... Y... Amenazando un poco, diciendo que éramos unos ladrones etc., etc. Que íbamos a robar, y bueno, yo di el

aviso de que había pasado eso... Y sí, nos pusimos directamente en contacto con las instituciones y... Se quedó ahí la cosa, las instituciones obviamente,[..] Pues solo pusieron pegas, impedimentos por todos los lados y no querían hacerse... Es más nos pidieron que nos disolviéramos y que dejáramos de hacer las cosas para ayudar a la gente porque para eso ya había unas instituciones que lo hacían” (Cristian, 27 urte, auzo koordinatzailea)

Baina auzoak ez zuen erakundeek irekitako bide kriminalizatzailetik jokatu, eta beraz, zaintza sareak egindako lana legitimatu zuen, horrela azaltzen du elkarrizketatu berak:

“todo el mundo, incluso eskerrik asko por haber venido, por haber hecho esto, y dices jolín, o sea eso la gente... Le llena y que ha habido 60 personas o 50 y muchas en el whatsapp y eso es que ha habido mucha gente al rededor, porque al final, familia lo que sea, lo que sea se ha movido ese círculo, y el hecho de que la gente diga, joe, pues eso ha estado muy bien” (Cristian, 27 urte, auzo koordinatzailea)

Botere borroka hau, zaintza sareak nolabaiteko kapital sinbolikoa akumulatzeko gaitasuna duelako gertatzen dela pentsa dezakegu nahiz eta hegemoniarik ez duen lortzen. Zentzu horretan, Casado Neira-ren (2003) azken bi gainbalioak nola agertzen diren argituko dut ondoren. Lehen, prestigioarena, nahiz eta elkarrizketetan behin eta berriro ez den agertzen, bada elkarrizketa bateko une bat zeinetan ondokoa aipatzen den:

“otras están porque... Pues queda muy bonito estar” (Cristian, 27 urte, auzo koordinatzailea)

Ezin dezakegu ziurtatu zaintza sareak ematen duen prestigioak erakartzen dituenik bertara parte hartzaileak, batetik, hori esateko datu falta handia dugulako, baina bestetik, beste arrazoi askoren artean ateratzen den arrazoi bat delako, kasik anekdota gisa agertzen dena. Hala ere, pentsatzekoa da zaintza lanek prestigiorik ematen ez baldin badute, are, prestigioa, eta beraz, kapital sinbolikoa metatzeko muga badira, hau da, zaintza lanak indarkeria sinbolikoak gurutzatzen baldin baditu, zaintza sarean ez dela hala gertatzen botere sinbolikoaren banaketa. Laburbilduz, zaintza sarean egindako lanek botere sinbolikoa esleitzerik badutela, oso kuota txikitan bada ere, zaintza lanak egiteko beste formatuetan ezinezkoa dena egikaritzuz.

Azken gainbalioa esker onean oinarritzen da, norberaren lana gainerakoek aitortzeak, egindako lana beharrezkoa izan dela, auzokideei onura eragin diela eta herritarrek hala onartzen dutela jakiteaz gain, hori bera esplizitatzea garrantzitsua da elkarrizketatu guztientzat. Haien lanak zentzurik baduela onartzeko bide da eta proiektua bera berrindartzen du.

“todo el pueblo, todas llamadas que recibíamos eran de... de felicitar, de agradecer, y de todo.” (Irene, 21 urte, auzo koordinatzailea)

Bourdieu-ren (2001) kapitalen analisiaren bidez eta Casado Neirak (2003) dohaintzak sortzen dituen gainbalioak aztertu ondoren, ondoriozta genezake oinarrizko baldintza batzuk beharrezkoak izan direla halako proiektu bat abian jartzeko, eta era berean, proiektu horrek, itxialdian zehar behintzat, aurrera egin ahal izateko. Izan ere, proiektuak ez direnez ezerezaren gain eraikitzen, oinarrizko baldintza batzuk izatea beharrezkoa da eta baldintza horiek zeintzuk izan diren aztertzen saiatu naiz orain arte.

Zaintzaren mugak: non eta zertarako

Zaintza lanak era desorekatuan banatuta dauden eran (Molinier eta Legarreta, 2019) zaintza lanak jasotzeko eskubideak ere modu desorekatuan banatuta agertzen zaizkigu. Ondorioz, zaintza sareen agerpenak zaintza jasotzeko aukerak demokratizatzeko bide izan ahal izan da. Zaintza sareak egiten zituen lanak ondorengoak dira orokorrean: erosketak egin, farmaziara joan, zaborra atera, maskotak paseatu. Hau da, zenbait pertsonak era autonomoan egin ezin zitzaketen lan batzuk egiten zituzten, oinarrizko beharrak asetze aldera. Bestelako beharrei dagokienez, batez ere, alderdi emozionalari, ez zioten erantzun. Hala azaltzen dute elkarrizketatuek zaintza emozionalak suposatzen zituen zailtasun eta mugak:

“No era porque no quisiese, era porque no tenían recursos para poder hacerlo, ni personas formadas, ni capacidad de gestión, ni tiempo” (Asier, 21 urte, koordinatzaile orokorra)

“Nos quedaba muy grande ” (Irene, 21 urte, auzo koordinatzailea)

Beraz, proiektuak alde zuzeneko formazioa exijitu zezakeen lanik ez zuen bere gain hartu. Gainera, kutsatzearen beldurrez ez zen parte hartzaile eta erabiltzaileen arteko kontaktu fisikorik suposatzen zuen lanik egin. Bi baldintza horiek (kontaktu fisikorik eza eta berariazko formaziorik eza) betetzen zituzten lanak egin zituzten batez ere. Horrek, jakina ez du esan nahi behar horiek existitzen ez zirenik eta sarritan zaintza sarera heldu ez zirenik. Kasu horietan, telefonoa hartzen zuen pertsonaren esku geratzen zen kudeaketa, proiektuak eta norberak zituen mugez jakitun. Irenek halako bi esperientzia bizi izan zituen eta horrela kontatu zituen:

“una señora [...] me llamó, y esa fue una llamada bastante... especial, no sé decirlo, no, no quería decir especial, bueno adierazgarria [En castellano: significativa] porque eso, era

una persona mayor que estaba mal psicológicamente, le estaba pesando mucho el... esto del confinamiento, lo de estar sola, el miedo pero también la soledad y un poco necesitaba atención telefónica, entonces sí estuve 15 minutos o así hablando con ella, [...] estuvimos un poco hablando y me dio un poco de apuro porque claro, pues al no tener yo tampoco ninguna prestación [formación] en temas sociales o de... trabajo social o de educación social o de esas cosas, pues un poco de... no sabía cómo gestionar el tema.” (Irene, 21 urte, auzo koordinatzailea)

“me llamaba un señor que... su vecino, bueno tenía dos vecinos muy mayores que... necesitaban empleadas de hogar para... cuidar a esos, bueno, el señor mayor tenía Alzheimer y le necesitaban levantar de la cama, ducharle, no sé qué, y la mujer del señor mayor no le podía atender a esas necesidades porque no podía cogerle, levantarle de la cama, era muy pesado para ella, o no podía llevar a cabo ese trabajo y por lo tanto tenía a dos trabajadoras de hogar, creo, para que la ayudasen en ese servicio [...] [una de las trabajadoras] había pillado coronavirus y que no podía ir a atender a esa familia [...] serían dos días solo, a la espera de PCR o algo así. Y claro, yo pasé esa llamada a la coordinación de Algorta y es que no podíamos hacer nosotros ese servicio porque no podíamos tener ningún contacto con la gente con la gente que llamaba a ese servicio. No éramos nadie, [...] no era un servicio del Ayuntamiento, de la Cruz Roja, especializada en esto, era muy... ¿no? Y decíamos que una raya roja que no podíamos, para nada, ser un posible contacto de coronavirus con la gente.” (Irene, 21 urte, auzo koordinatzailea)

Errelato horrek argi adierazten du zaintzaz ezarritako mugak argiak izan arren, parte hartzaileek kontraesanak izaten dituztela, halako egoeretan ahal dutena egiteko beharra senti dezaketela eta horrek arriskua suposa dezakeela parte hartzaileentzako. Sareak parte hartzaileen artean eta parte hartzaile eta erabiltzaileen artean era kontzientean ezarritako urruntze horrek zenbait galdera planteatzen ditu: Proiektuan eginiko lanak zaintza lanak ote dira? Nola egokitzen dira zaintzaren nozioari berari buruzko eztabaidetan pertsonen artean inolako harremanik gabe egindako zaintzak? Beraz, galdera orokor batetik abiatuko gara, honako atal hau gidatuko duena: sare horiek zaintza-sareak al dira?

Zaintza sareak, horrela deitzen dira proiektu hauek, lehen aipatu bezala ordea, ez da inoiz zaintzaren inguruko teorizaziorik egin proiektuaren barnean. Baina zein puntu arte dira sare horiek, zaintza-sareak? Galderak zaintzaren definiziora garamatza ezinbestean, autore askoren lanetatik abiatuta zantzu oinarritzko batzuk ezarri ditugu hasieran, eta badira bi elementu definizio denetan, era batean edo bestean, agertu zaizkigunak: “bizi ahal izateko” eta “egitea” (Tronto, 1993; Molinier, 2011).

Bizirik jarraitzeko egiten dugun hori da zaintza beraz, besteek ere biziraun dezaten egiten duguna. Molinier-en hitzetan zaintza ondokoa da: “hacer algo, producir un determinado trabajo que participe directamente del mantenimiento o de la preservación de la vida del otro” (Molinier, 2011:49, citado en Wlosko y Ros, 2019). Kasu honetan zaintza sareak inguruko bizitzak eusteko lan ezinbesteko bat egiten du, oinarrizko beharrak diren neurrian, nahiz eta norbanakoen arteko harreman fisikoak saihestu, haren helburua betetzen duena, kasuan kasu, elikagaiak helaraztea, sendagaiak eramatea, besteak beste. Gainera, halako zaintza sareak alarma egoera ezarri eta berehala sortzen dira, biztanleria bakartuta dagoen une batean, eta sortzen baldin badira, bizitzari eusteko ezinbestekoak direlako egiten dute. Ondorioz, ezin dira paralizatu, zaintzak ez baitu denboran mugarik (Molinier eta Legarreta, 2019), bizitza bera delako zalantzan jartzen duena une batez geldituz gero.

Ondorioz, analisi honi hasiera eman dion lehen galderari erantzunez, bai, zaintza lanak egiten dituen proiektu bat da, eta nahiz eta horren inguruan teorizatzeko tarterik ez duten hartu, zaintza lanak termino materialetan betetzen dituzte. Hala ere, ezinbestekoa da gainerako dimentsioetara, dimentsio subjektibora eta politikora, ere hurbiltzea proiektua agertu diren tentsioak zein izan diren jakin ahal izateko. Bi dimentsio hauek agerian geratzen dira proiektua zaintzaren etikaren begiradatik aztertzen baldin badugu. Trontoren aburuz, zaintzaren etika zaintza lanetan garatzen da, zaintza lanak egiten dituzten pertsonen etika espezifiko bat da eta zaintza lanek suposatzen duten hori egitean eskuratzen da. Gainera, Lanaren Psikodinamikaren Teorian oinarrituz, lana, edozein lan, subjektibitate sortzaile dela izan behar dugu kontuan (Dejours, 1988; Idal et al, 2020en aipatua). Baina posible al da zaintzaren etika garatzea zaintza sarean parte hartzaileek lan egin zuten baldintzetan?

Gorputza desagertu egiten den egoera batean zaila da zaintzaren etikaren eraikuntzaren inguruko erantzunak aurkitzea. Izan ere, “la ética del cuidado se sostiene en una experiencia cuerpo a cuerpo” (Molinier eta Legarreta, 2019:179) eta gorputzaren presentzia hori, zaintza sarearen baldintzetan gertatzea ezinezkoa da. Zaintza kate globalen inguruko hausnarketak baliagarri zaizkigu gorputzak batera ez daudenean zaintzaren etika nola garatzen den ulertzeko. Hochschild-ek *La mercantilización de la vida íntima* lanean Mariaren esperientzia kontatzen du, Filipinas-eko emakume bat, Californian 8 hilabeteko haur bat zaintzen duena eta 12 eta 13 urteko bi seme-alaba dituen Filipinasen, hala kontatzen du Hochschild-ek: “María los llama y les envía dinero, lloren o se enojen y pase lo que pase” (Hochschild, 2008:179). Nahiz eta gorputza hor egon ez, Mariak zaindu egiten ditu, bada zaintzaren presentzia bat. Sareko kide batek hala kontatzen du gorputzaren ausentzia hori:

“Fue un poco rara la sensación de... claro, estás haciendo un favor, pero no te abren la puerta, no le ves la cara ¿no? esa... sensación de... [...] jode, es que no he visto a esta persona, claro, nos separa una puerta, no sé quién es.” (Irene, 21 urte, auzo koordinatzailea)

Zentzu honetan, garrantzitsua da parte hartzaileek sarearen parte izateko dituzten arazoiei behatzea. Pertsona bakarrak aipatzen du lan horiek itxialdian zehar izan zuten beharrezkotasuna, gainerakoek ez dute termino asistentzialistetan ulertzen sarean parte hartzeko arazoa. Aitzitik, egoeraren irakurketa politikoago bat egiten dute eta gainerako parte hartzaileei egozten dizkiete karitatezko motibazioak:

“Sabíamos que esa situación era bastante ¿no? de agradecer todo, la gente, los aplausos (con ironía) no sé qué, era muy... Pero bueno, también un poco de caridad o así también” (Irene, 21 urte, auzo koordinatzailea)

